

1. BALIO PROPOSAMENA

Gure proposamenaren balioa kualitatiboa izango da. Kalitateari inportantzia emateko, gure produktua beste enpresek eskaintzen duten produktuetatik bereiztea bilatzen dugu. Horretarako, gure opari-paperak, hainbat desberdintasun eskainiko ditu:

Produktua pertsonalizatua izateko, hainbat eredu eskainiko ditugu eta bezeroek irudi eta koloreak erabakitzeko aukera izango dute. Hortaz gain, bezeroek nahi duten argazkien bidez opari-papera pertsonalizatuagoa izango dute, adibidez, bezeroak oparia egingo duen pertsonarekin duen argazki bat.

Gainera, paperean QR kode bat jartzeko aukera emango dugu, non bideo, audio edo gustoku duen musika bat ipini dezakeen eta horrela lagun edo familiako kideak eskaneatu ahal izateko.

Paperaren forma edo irudiak ahalik eta hobekin gelditzeko, kutzak ere eskainiko ditugu, honen bidez, argazkiaren neurriak ondo koadratuko dira tolesturarik gabe. Izan ere, hainbat opari, dituzten formagatik ezin dira bildu.

